ZUZEN PARALELOAK ETA ZUZEN EBAKITZAILEAK

Marra zuzenen artean bi mota edo tipo desberdin ditzakegu:

Zuzen hauek puntu batean elkartzen dira

Zuzen paraleloak ez dira inoiz elkartzen

Zuzen ebakitzaile desberdin batzuk daude. Horien artean ezagunenak PERPENDIKULARRAK dira

Elkar ebakitzean lau angelu berdin eratzen dituzten bi zuzen **zuzen perpendikularrak** dira.

Zuzen perpendikularrek eratzen dituzten angeluak **angelu zuzenak** dira.

Begiratu arretaz angelu zuzenei adibide hauetan:





a eta b zuzenak perpendikularrak dira.

PERPENDIKULARRAK elkartzen direnean **"L"** baten **FORMA** osatzen dutela ematen du

Bai, aita, edo gurutze perfekto bat!

Orain zuen txanda: Ea desberdintzen dituzuen:

1) Begiratu plano honen irudia eta erantzun

a) Paraleloak al dira Haritz kalea eta Akazia kalea? **BAI** **EZ**

b) Nolakoak dira Akazia kalea eta Gurbitz kalea euren artean ? **PARALELOAK** **PERPENDIKULARRAK**

c) Eta Zumar kalea eta Akazia kalea ? **PARALELOAK** **PERPENDIKULARRAK**

2) Begiratu trafiko seinale hauek. Idatzi ea lerro zuzen ebakitzaileak edo paraleloak dituen



_____ _____ _____ _____

3) Aztertu lerro zuzen hauek. Nolakoak dira euren artean? **Paraleloak, perpendikularrak edo beste zuzen ebakitzaileak**



a eta b:_____

c eta d:_____

e eta c:_____